



261. zenbakia

• Apirila 2026 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



24. KORRIKAKO MEZUA

«Euskara gara eta hemen gaude. Eskutik eskura trazatu dugu gure herriaren gorpuzkera.

Hatsanturik, baina aitzina eraman gaitu gorpuztak. Urrats bat eta bestea, lurtean errotuz.

Korrika dabilenean izerdiz betetzen den gorpuzta da gurea. Borrokaren eta desiraren aztarnak harro daramatzana. Korrika dabilenean taupadak azkartzen zaizkion gorpuzta da gurea. Asaldatu egiten dena. Nekatu egiten dena. Hunkitu egiten dena. Korrika dabilenean indarberritzen den gorpuzta da gurea. Etengabeko eraldaketak aberasten duena. Beti aurrerantz doana.

Sohütatik, Urepeletik, Tuteratik, Hendaia-tik, Barakaldotik, Gasteiztik, Eskoriatza-tik... pasatu den gorpuzt bat egin dugu. Basa, asfaltoa, belarra, harea... zapaldu dituen. Lur zati bakoitzeko eleak ikasi dituen. Pauso sendoz dabilela dirudi, baina zalantzatia ere bada gorpuzta.

Birpentsatu zalea, beharrezkoa denean iritzia aldatzen duena.

Gure gorpuztak esan nahi duen dena euskaraz da, baina ez du esan nahi bakarrik euskara. Egin nahi du berba nekez, pozaz; botereaz, minaz. Egin nahi die orro batzuei eta irri besteei.

Zenbat gara? galdetzen genuenok nortzuk garen ere jakin nahi dugu orain. Nondik garen, zergatik egiten dugun hau guztia, zerk sortzen duen gutasuna. Euskara gara diogu, ez euskara naiz. Komunitateaz ari gara. Beso zabalik dagoen gorpuztaz, zeinak leihoak dituen begietan.

Urrats bat eta bestea, gorpuzt bat egin dugu denona. Ez dezagula ahaztu hori bihar, bakoitza berera itzultzen garenean. Euskarak egin du gorpuzta. Hizkuntzak eraldaketarako tresnak dira, leku bat ematen digute bizi gaitezen. Euskarak herri hau eman digu. Horregatik mintzo gara izateaz, egiteaz. Euskaraz egin

egiten da, baina izatea ez da edozein gauza. Izatea egotea ere bada, nonbait mugimenduan, borrokan.

Urrats bat eta bestea, aurrekoei jasoa dakargu ahots berrietan. Honaino heldu gara, bai, baina ez gara iritsi. Oraina berehala amaitzen da. Azalberrituta datoz munstro zaharrak, baina gorpuzt bat sortu dugu. Askotarikoa, konprometitu, indartsua. Eta gaur hemen badago, egongo da bihar ere.

Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude.

Aurrera goaz. Bazatoz?>>

Oier Iñurrieta Garmendia

Oihana Arana Cardenal

Elene Mengyu Larrinaga Bilbao

Beñat Jusue Rosano

Aitzol Gil de San Vicente Pla

Xalbat Alzugarai Etxeberri

Leire Casamajou Elkegarai

Hautatu

3 hedabide

**Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde**

bera

Km

komunikazioa


Esan Erran Irratia
107.9 FM



pulunpe

amezti 

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

AURKIBIDEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@ametza.eus

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurдан, Denok Bat Elkartea, Basaburuko Ahaztuak, Ametza Kultur Elkartea eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

24. Korrika eskualdetik igaro zen martxoaren 22an. Ilarregiko Kontzejuak Gelbentzutik Lizasorako bidean erosi zuen kilometroa.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 17an bidalia.

04

Gaurko gaia. *Lanzko meategi arkeologikoa*



08

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkartea*

10

Albisteak.

16

Historia. *Alkozko San Salvatore ermita*

20

Zer ikusi. *Apirilcan*

22

Aspaldiko kontuak.

23

Ingurumena. *Ecozine*

25

Ardo freskoa. *Kezka eta beldurra*

26

Zer irakurri. *Utzamako liburutegia*

28

Berezia. *Korrika gure eskualdean*

33

Kolaborazioa. *Cederna Garalur*

34

Berezia. *Ezpela euskara elkartea*

35

Jaiotzak, eskontzak eta heriotzak. *Otsaila*

Lantz: Mendebaldeko Pirinioetako meategi erromatar garrantzitsuenean lanean

Maria Fernandez Casales eta Teresa Lacosta Ramirez arkeologoak, Arturo Hermoso de Mendoza Errea espeleologoarekin 2022tik ari dira Lantzko meategi erromatarrean lanean. Aztarnategiak, arkeologikoaz gain, natura eta historia ondare oso garrantzitsua osatzen duela nabarmendu dute eta eman dituenaz gain, oraindik ere sorpresak egon daitezkeenik ez dute baztertzen

Pulunpek 2024an bisita egin zuen kobazuloek osatzen duten aztarnategira, proiektua pasioz bizi duen Ruben Beuntza herritarrarekin. Lantzko Udaleko zinegotzia ere bada, eta bere interesari eta bul-tzadari esker jarri ziren berriz ere martxan Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea erakundeak koordinatzen dituen lan arkeologikoak. Oraingoan, landa-lanean ari den taldearekin jarri gaitu harremanetan, haren lana ongi ezagutu dezagun.

Maria Fernandez Casales eta Teresa Lacosta Ramirez arkeologoak eta Satorrak Espeleologia Taldeko Arturo Hermoso de Mendoza Erreak osatzen dute diziplina anitzeko talde hori. Neguko kanpaina burutu berri dute, 20 eguneko prospekzioa. Udan beste kanpaina bat egiten dute, eta, hor Arrosako (Behe Nafarroa) Argitxu Beyrie eta Eric Kammenthaler, eta Toulouseko Unibertsitateko Jean Marc Fabre arkeologoak batzen zaizkie. Baita Eneko Iriarte eta Martin Arriolabengoa geologoak ere, Burgosko eta Euskal Herriko Unibertsitatekoak. Jesus Garcia Gazolaz, Nafarroako Gobernuko arkeologoak zuzentzen ditu lanak.

Lan taldea: Arkeoespeleologoak

Teresa Lacostak Historia ikasi zuen eta ordutik arkeologo lanetan aritu da. Maria Fernandezek Arkeologia

ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta masterra Burgosko Unibertsitatean. Arturo Hermoso de Mendoza, esan bezala, Satorrak Espeleologia Taldeko kidea da, eta 90. hamarkadatik laguntzen du arkeologia lanetan: "Behin horrelako aztarnategi bat aurkitu genuen, haitzulotako hartzaren

aztarnak zituen, 1995. urtean. Nire lehenengo kontaktua izan zen mundu honekin eta botako gintuztela pentsatu nuen. Justo kontrakoa izan zen. Orduan Tino Torres paleontologo mitikoa ezagutu nuen eta berarekin indusketetan parte hartu genuen. Hor engantxatzen joan nintzen, geroz eta gehiago,



Ezk.-esk. Jesus Garcia Gazolaz, lanen zuzendaria; Maria Fernandez arkeologoa; Arturo Hermoso de Mendoza espeleologoa eta Teresa Lacosta arkeologoa



“

Arturo Hermoso de Mendoza, espeleologoa:

**(Arkeologiara)
Engantxatzen joan
nintzen eta gaur
egun arte. Beraiekin
lan egitea zoriontsu
egiten nau, asko
ikasten dut**

”

gaur egun arte. Beraiekin lan egitea (Teresa eta Maria seinalatuz) zoriontsu egiten nau, asko ikasten dut”. Arkeoespeleologia terminoa asmatu du, berarendako elkarlana oso garrantzitsua delako. Teresa Lacosta: “Guk espelelogiaz ikasi dugun bezala berak arkeologiaz. Ziur aski guk gehiago ikasi dugula”. Aldi berean, orain, espeleologoak ere identifikatzen ditu zenbait elementu arkeologiko. Maria Fernandez: “Denok batera joan gara meategiko elementuak identifikatzen”.

Lanzko Udalaren laguntza ere behin eta berriro nabarmentzen dute. Arturo Hermoso de Mendoza: “Proiektu honen gauzarik ederrena iruditzen zait. Elementu asko daude inplikatuak, espelelogiaz eta arkeologiaz hitz egin dugu baina Administrazioa ere garrantzitsua da, herria, herritarrak. Ez da gauza bera kanpotik bultzatzea edo herriak berak egin nahi izatea. Mimo gehiagorekin egiten da eta garrantzitsua dela nabaritzen duzu, egiten ari zarena interesa sortzen duela eta hausnarketak eragiten duela”.

Lur azpian lan egitea


Arturo Hermoso de Mendoza espeleologoaren lan nagusiak bi dira: segurtasuna bermatzea eta topografia jasotzea (galerien planoak izateko eta aurkikuntzak kokatzeko). Kobazulo barruko arkeologia lanak imajinatzen saiatu gara, baina ez da erraza. Askotan putzu bertikaletan behera egin behar du taldeak. Bi arkeologoak jaitsi ziren lehenengo egunaz oroitzen dira, Teresa Lacosta: “Ni noizbait kobazulo batean sartua nintzen baina ez horrelakoa (irriak)”. Maria Fernandez: “Ni sekula ez naiz horrelako toki batean lanean aritu. Segurtasun eza sentitzen nuen, nondik mugitu ez nekiela. Blokeak, behera etorritako paretak

“

**Maria Fernandez,
arkeologoa:**

**Niretzako,
aurkikuntza
puntualek baino
garrantzi gehiago du
gune arkeologikoak
berak, osorik**

”



▲ Maria Fernandez Casales, Lanzkoa eta arkeologoa

eta kolapsoak ikusten dituzu eta hasieran beldurra sentitzen duzu. Baina Arturok segurtasun handia ematen zigun". Arkeologoek jardunaldi osoak eskaini zioten teknika ikasteko. Arturo Hermoso de Mendozak neurriak serio hartzen ditu: "Batuetan esan genezake, hemen igual ez du merezi soka jartzeak, baina guk berdin-berdin jartzen dugu, beti". Kontuan izan behar da jardunaldi luzeak egiten dituztela, eta nekea ere sumatzen da. Indusketa lanetan bost ordu eman ditzaketeko kobazulo barruan, baina ahora iristeko bakarrik ordu erdi behar da, eta aurreko egunean lana utzi zuten galeriara iristeko ere denbora behar dute.

Bestetik, sistema karstikoetan ura izaten da, eta joan zen urtean susto txiki bat ere izan zuten. Beno, Maria Fernandezek behintzat bai: "Baina ni horrelakoa naizelako! (irriak) Putzu bertikal batetik ateratzen ari ginela soinu arraroak entzun eta bat-batean ura hemen genuen -(zorua seinalatzen du, oso gertu zutela adieraziz)-. Goizeko 10:00etan jaitsi ginenean ura geldirik zegoen

eta betiko mailan, eta bat-batean bi metro inguru gora egin zuen". Hermoso de Mendoza espeleologoa: "Ez zuen azalpen logikorik. Euririk ez zuen egin hamar bat egunetan eta behin baino gehiagotan gertatu zitzaigun, kanpaina berean. Egun berean igo eta jaitsi egiten zen, horregatik, toki horri zisterna izena jarri genion". Segurtasun neurriak zorrotz jarraitzeaz gain, egunero Ruben Beuntza zinegotzia abisatzen dute kobazulotik atera eta etxerako bidea hartzen dutenean eta baita Vianako Printzeko arduradunak ere.

Mendebaldeko Pirinioetako garrantzitsuenak

Lanzko meatzaritza gunea 80. hamarkadan hasi zen ikertzen, baina berehala eta espoliazio bat tarteko, lan horiek utzi ziren. Orduan jakina zen Erromatar Garaiko meategiak zirela baina 2024an agertutako zeramikarengatik jakin izan dugu Brontze Garaian ere ustiatzen zela, Teresa Lacostak azaltzen digu: "Esplotazio txikiak izanzen ziren eta erromatarrak hasi ziren maila

handian ustiatzen". Eta orduan izugarrizko azalera hartu zuen, Maria Fernandez: "Niretzako, aurkikuntza puntualek baino garrantzi gehiago du gune arkeologikoak berak, osorik, meategiak berak. Beti jotzen dugu agertzen diren materialak bakarrik kontuan hartzera, baina denari begiratu behar zaio, zuen garrantzia eta egiten zen ustiaketa. Lur mugimendu handiak egin zituztela ikusi dugu". Teresa Lacosta, ados: "Nafarroan ez da horrelakorik ezagutzen, meategi txikiak egon daitezke han eta hemen baina garrantzi honetakoak ez. Erromatarren garaian esfortzu handiak jarri ziren hemen minerala ateratzeko".

Azalera gain, duen kontserbazio maila ere oso garrantzitsua da. Teresa Lacosta: "Gipuzkoan daudenak, Arditurrikoak, Lanzkoen garai berekoak dira baina gero ustiatzen jarraitu zirenez ez dira berdin kontserbatzen. Lanzkoak Erromatar garaitik ukitu gabe daude eta zerbait egin bada ez du aurrekoa tapatu". Horregatik, hauxe uste du Arturo Hermoso de Mendoza espeleologoa: "Kobazulo hauek ez dira behar bezala baloratu eta orain egiten ari da".

Lanen amaierak

Lanen amaiera datarik ez dute oraindik, urtez urte joaten baitira zehazten. Momentuz Aierdi magala amaitu nahi dute. Ondoren, Vianako Printzeak esan beharko du. Teresa Lacosta: "Beste hegala zailagoa omen da ikertzen, ematen duenez kolapsatuago dago eta beharbada ezin gara hainbeste sartu". Baina zaila da jakiten urtero hartzen dutelako sorpresaren bat, Arturo Hermoso de Mendoza; "Aurreikusten duguna beti handitu egiten da. Harrigarria da". Taldeari lanak amaitzea pena ematen diola sumatu daiteke, Teresa Lacosta: "Bada, orain Arturok esan digu urtebete besterik ez dela gelditzen"- Arturo



Teresa Lacosta Ramirez kobazuloan lanean ▲



Hermoso de Mendoza: "Hori esan al dut?"- Maria Fernandez: "Bai, gauza txikiak besterik ez direla gelditzen". Arturo Hermoso de Mendozak martizatu du: "Duela bi urte, meategi handiena miatzen ari ginen eta urte hartan amaituko genuela uste genuen, baina bat-batean aurkikuntza bat egin genuen eta beste urtebete egon behar izan ginen 500 metro agertu zirelako... oraindik sorpresak eman ditzake".

Kanpaina bakoitza amaituta bi arkeologoek memoria bat osatu behar dute egindako prospekzioak azalduz

eta agertutakoa jasoz. Guztiak Viako Printzea erakundearen gordetzen dira. Publikoak dira eta kontsultatu daitezke. Ondoren, gainera, behin indusketak amaituta, artikulatu zientifikoak ere publikatuko dituzte Nafarroako Lan Arkeologikoen Aldizkarian. Gainera, kongresuetan ere izan dira eta Lantzen bertan egiten ari diren dibulgazio lanak ere garrantzitsuak dira: Larraintzako Ikastetxearekin bisitak antolatu dituzte, Europako azken Ondare Jardunaldiak Lantzen izan ziren, herritarrendako bisita gidatuekin. Mendizale talderen batek ere bisita eskatu die.;

“ Teresa Lacosta,
arkeologoa:

Nafarroan ez da horrelakorik ezagutzen, meategi txikiak egon daitezke baina garrantzi honetakoak ez

”

Urtero, sorpresak

2024an hiru aurkikuntza nabarmendu ziren prentsan: iberieraz idatzitako IKAE inskripzioa, garai horretan alfabetizazioa uste baino zabalduagoa zegoela adierazten duena; zeramikak, Brontze Aroan ere meategiak ustiatu zirela adierazten dutenak; eta, egurrezko kirtena mantentzen duen mailua, penintsula osoan bakarra.

Geroztik, badira agertutako material ikusgarri gehiago:

• **Luzerna bereizgarri bat:** Dresel 4 deiturikoa, meategi ezberdinetan aurkitu da eta, gainera, oso data zehatz batean erabiltzen zen: k.a 20. urtetik 10.era. Meategia orduan ustiatzen zela gehien adierazi dezake.

• **Aldamio azpiegitura:** "Enborrez osatutako sare bat izanen litzateke eta gainean xafla bat jarriko zuten. Hori guztia negatiboan ikusten da, zuloak ikusten dira oso ongi, ia bi

metrotako enborren zuloak. Langileek ibiliko ziren oholtzak izanzen lirateke", azaldu digu Teresa Lacostak.

• Aldamio horietan, **inskripzio gehiago.** Maria Fernandez: "Abstraktuak diren inskripzioak dirudite"- Teresa Lacosta: "Beste batzuk latinez, zenbakizko inskripzioak: M, MM, X...". Filologoek aztertuko dituzte.



“ Maria Fernandez,
Herrian urtero sorpresak jasotzera ohitu dira. Aurten garrantzi gutxiagokoak aurkitzen baditugu... ea nola jasotzen gaituzten! (irriak)

”

Udaberriko festa eta Alkotzen ibilaldiak

Urtero ospatzen dugun Udaberriko festari buruz hitz eginen dizuegu gaurko kolaborazioan, baita hilabete honetan Alkotz aldean egin ditugun ibilaldiei buruz ere.

Urtero Denok Bat elkartearen eguna ospatzen dugu Udaberriko festan. Aurtengoa martxoaren 28an izan genuen eta Ziaurrizko elizan bildu ginen. Ohitura dugun bezala, aurtien 85 urte betetzen dituztenak omendu genituen.

Elizakoak egin ondoren, eliz atarian elkar agurtzeko beta izan genuen autobusak hartu eta Iruña aldera bazkaltzera abiatu aurretik.

Aurtengo elkartearen festako bazkaria Uslaer jatetxean izan genuen, guretzat lehendik ezaguna zena. Gurea bezalako talde handientzat toki oso aproposa da, pentsa, 140 bazkide bilgu ginen!

Gure zain zaudenez, iritsi eta berehala pasa ginen mahaira. Gure musika-ria ere prest zegoen ordurako, Usetxi-ko Aitor izan zen oraingoan, eta ongi etorri musikatua eman zigun. Ohitura bihurtu den topatzeko kantarekin ha-



Argazkian, ezker-eskuin, Lourdes Beunza Urriza, Lizasokoa, Sagrario Ariztegi Narvaez, Alkozkoa, Crescencia Garate Balda, Zenozkoa, Beatriz Echegia Cenoz, Zenozkoa, Joaquin Echenique Lacunza, Burutaingoa, Jose Antonio Garbisu Orayen, Muskizkoa eta Juan Yaben Mariñelarena, Beuntzakoa. ▲

siera eman genion bazkari luze eta bikainari. Bazkariaren ondoren, gure musikariak dantzan jarri gintuen, es-tilo askotako dantzak egiteko musika jo zuen, edozein herriko plaza balitz bezala. Asko animatu ziren gutxienez dantzaldi bat egitera eta izan ziren

“dena eman zutenak” ere. Mahaie-tan ere geratu ziren beste batzuk, jostaketa alaian, dantzari^ei zeharka begiratu^z.

Uste baino lehen iritsi zitzaigun etxera bueltatzeko ordua, baina pozik gelditu ginen, egun ederra pasa genuelako.



Dantzan ▲



Indarrak berritzen ▲

Alkozko ibilaldiak

Martxoko ibilaldiak Alkotz herri inguruan izan ziren, bai ibilaldi arinagoa eta baita zailtasun handiagokoa. Oihanbeltz alderdia ikustea izan zen helburua eta lau orduko ibilbidea egin zuten gure mendizaleek.

Egun polita atera zen, nahiz tarte batean euritakoa ere erabili behar izan

zuten. Egun freskoa izan zen, baina oinez ibiltzeko egokia.

Bakoitzak bere ibilbidea egin ondoren, bi taldeak elkartu ziren Alkozko ostatuan, bazkaria elkarrekin egiteko, ohitura den moduan.

Hurrengoan San Martin de Unx-erako txangoari buruz izanen da kronika eta Etxauri aldean eginen diren ibilaldien

berri ere izanen duzue. Gerora, Extremadurako bidaiaz eta Ultzamako frontoian eginen den zahartze aktiboaren jardunaldiari buruz ere ariko gara. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



▲ Bi taldeak elkarturik bazkarirako



Diruz lagundutako taxi zerbitzua Basaburuan

Auza eta Irurtzungo autobusarekin lotura egiteko taxi zerbitzua izanen da. Helburua, garraio publikoaren erabilera eta herritarrendako sarbidea bultzatzea da. Zerbitzu honi esker, erabiltzaileek kontzejuetatik Auza eta Irurtzungo autobus geltokietara joan ahal izango dute. Taxiak beren kontzejuan jasoko baititu eta dagokion autobus geltokira eraman. Erabiltzaileak 3 euro ordaindu beharko ditu, prezioaren gainontzekoa diruz lagunduta dagoelako eta Taxia aurreko egunean erreserbatu beharko da, 19:00ak baino lehen.

Joatea:

Autobusa, Auzatik Iruñera, 06:54ean atera

Autobusa, Irurtzundik Iruñera, 10:54ean atera

Itzultzea:

Autobusa Iruñetik 15:30ean atera Auzarantz

Autobusa Iruñetik 18:00etan atera Irurtzunerantz

Honetarako, Basaburuko Udalak hitzarmena sinatu du Nafarroako Gobernuarekin eta 15.000 euroko aurrekontu-saila jasoko du.





Jan Talo foodtruck-a Jauntsaratsen

Katak azken urteotan su txikian egosi duen proiektua da Jan Talo. Foodtruck-a da martxan jarri berri duena, baina hanburgesak eta antzeko jakiak beharrez, taloak saltzen ditu berak. Begetariano eta beganoei aukera eskaintzeaz gain, glutenik gabeko jakiak egitea ere bazen bere asmoa, eta gainera, bertako osagai ekologikoak darabiltza, ahal den neurrian. Artoari dagokionez, esaterako, lpar Euskal Herriko arto ekologikoa darabil, baita bertako barietatea den arto gorria ere.


Taloei dagokionez, betiko taloak izan beharrez osagai bereziagoekin osatzen ditu: txistorra eta oilaskoa tipula potxatuarekin eta gaztarekin, humusez betetakoak, guakamole taloa osagai gehiagorekin...



Momentuz, ostiral eta larunbatetan izanen da Jauntsaratsen, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean. Baina, aurrera begira, herri gehiagotara mugitzea ere bada Kataren asmoa.



- **PSIKOTERAPIA**
- **ORIENTAZIO PSIKOLOGIKOA**
- **ARAZOAK KONPONTZERA BIDERATUTAKO TERAPIA LABUR ETA ESTRATEGIKOA**



- **PSICOTERAPIA**
- **ORIENTACIÓN PSICOLÓGICA**
- **TERAPIA BREVE Y ESTRATÉGICA ENFOCADA A SOLUCIÓN DE PROBLEMAS**

luzkiapsiko@hotmail.com

Ane Buitrón (N-02107)

637 18 60 27



Imozko Pala eta Frontenis txapelketa amaitu da

Urtarrilaren 23an hasi zen eta martxoaren 27an amaitu da. 24 bikotek parte hartu zuten osotara. Hiru mailatan jokatu da pala txapelketa: lehenengo, bigarren eta hirugarren mailan; eta, bestetik, emakumezkoen frontenis txapelketa. Finalak, esan bezala, martxoaren 27an, ostiralarekin, izan ziren eta hauek izan ziren emaitzak:

- Pala, hirugarren mailan: Martinez - Gorriz / Jaunarena - Azpiroz / 30-14

- Emakumezkoen Frontenisean: Erice - Iribarren / Lopetegui - Imaz / 23-25

- Pala, bigarren mailan: Senar - Mitxelena / Cumba - Xalbador / 26-30

- Pala, lehenengo mailan: Galarza - Ezquer / Alberro - Razkin / 30-9

Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak urtero antolatzen duen txapelketa da eta partidak Latasako Frontoian jokatu dira.

Gainera, Ultzamaldeko Kirol Zerbitzuak bi txapelketa antolatu ditu, biak apirilean eta maiatzan jokatuko dira. Pilota Goxoko V. Txapelketaz ari gara, Auzan (Ultzama); eta, Frontenis V. Txapelketaz, Olagueko frontoian (Anue). Azken honetan berritasuna ere badator, izan ere, emakumezkoen mailaz gain, maila mistoa ere izanen da.



Bakarrik dauden adingabe migratzaileendako harrera familien bila

Berriztu Elkarteak Harrera proiektua jarriko du martxan. Gurera bakarrik iristen diren adingabe migratzaileei zuzendua dago eta martxoaren 30ean aurkeztuko zuten Larraintzarren. Amaia Etxeberria elkarteak kideak eman zizkigun Esan Erran Irratian ekimenaren xehetasunak.

Harrera egitasmoa Nafarroa osora zabaldu nahi den programa da, bakarrik etortzen diren adingabe migratzaileei harrera egiteko asmoarekin. Horretarako, harrera pertsonak eta familiak bilatzen ari dira egitasmoaren bultzatzaileak. Modu ezberdinetan parte hartu daiteke, etxean aste osoan adingabe bat harreran hartuz, baina baina baita asteburuetan, jai egunetan eta oporretan jaso. Proiektuaren inguruko nondik norako guztiak azaldu zituzten Berriztu elkarteak kideak

martxoaren 30ean Larraintzarko Zentro Zibikoan egin zuten aurkezpenean.

Informazio gehiagorako: 686 199 095 eta resp.harre-ra@berriztu.com





Ibilbide osasungarriak egiten hasi dira Imotzen

Imozko udaletxetik ekimen osasuntsuren bat bultzatzeko asmoz, ibilbide osasungarrien proiektua jarri berri dute martxan. Bailaran bizi den Gina Vila izanen da ekimeneko gidaria, eta hasiera batean, hilean behin egingen dituzte irteerak. Martxa nordikoa praktikatzeko aukera ezin hobea dute herritarrek: ibilaldi bat egitean datza, baina bi makilekin lagututa. Gorputz osoa lantzeko moduko kirola da, eta bultzatzaileen asmoa da parte hartzaileek pixkanaka teknika ikas dezaten.

Adin guztietako jendea animatu nahi dute parte hartzera, kirola egitearen onurez gain, herritarren arteko harremanak ere sustatu nahi baitituzte bultzatzaileek. Lehen ibilbidea martxoaren 28an egin zuten, Latasako Biltegitik abiatu eta Zarrantzera. Lehen egun hori nahiko arina izanen zela azaldu zuen gidariak Esan Erran irratian, eta asmoa pixkanaka maila igotzea dela. Hilabetean behin egingen dituzte ibilbide osasungarriak, larunbatetan. Hurrengo, hasiera batean, Etxaleku inguruan egingen dute apirilaren 25ean.



Zuzenketa bat

Fotografia baten informazioaren zuzenketa

Urtarrileko Pulunpen, 258. zenbakian, atera nuen fotografia bat non hiru gizon ageri diren, Don Emilio, Muskizko apez izandakoa, Don Manuel Garbisu Barberia bigarrena eta hirugarren bat, lehen planoan dagoena. **Alkateneko** misiolaria izandakoa zelakoan nengoen baina, muskiztar batek esan didanez, ez da hala. Gizon hori misiolariaren anaia da, Juan Eritze Intsausti, hemendik Argentinara emigratu zuena. Bere bisita batean ateratako fotografia dugu.

Fotografia eta datuak Jose Antonio Garbisu Oriaienek emanak dira.






Gurseko kontzentrazio esparrura bidaia antolatu du Basaburuko Ahaztuak elkarteak

Maiatzaren 9an Josu Txuekarekin hitzaldia antolatu du Basaburuko Ahaztuak taldeak. 'Gurs, el campo vasco' liburuaren egilea da bera, eta solasaldia arratsaldeko 18:00etan izanen da Apeztegi berriko ganbaran, Jauntsaratsen. Gerora, maiatzaren 23an, kontzentrazio esparrura irteera eginen dute, eskualdeko errepresaliatuak ere izan baitziren bertan, orain arte ikasi dutenez: Olagueko Ricardo Oskoz Larralde eta Joaquin Maria Zilbeti Iraizotz. Basaburuko medikua eta hura ere errepresaliatua izan zenaren semea, Javier Iturbide Urmeneta -Iruñean hazi zen baina Jauntsaratsen jaio

eta bere errautesak hemen bota ziren; Erbitiko Antonio Saralegi Otxandorena; eta Arrarasko Jose Antonio Barberia Ziordia.

Hitzaldiaz gain, esan bezala, irteraldia prestatzen ari dira Mauletik kilometro gutxira dagoen esparrura. 9:30ean aterako dira Jauntsarastik autobusez, jantzia eramanen dute han bertan bazkaltzeko eta bertako historia kontatuko duen gida ere izanen dute. Bidaia 15 euroren truke izanen da gutxi gorabehera eta apuntatzeko telefonoz egin daiteke eta Apeztegi berri eta Aizarozko Ostatuan zerrendak ipiniko dira.



Begiratu noiz dāgokizun

UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA



CECILIA



ELENA



JUDITH



ALBA

30, 35, 40, 45, 50, 55, 60 edo **65** urte badituzu, begiratzeko unea da.
Eta **25** edo **28** badituzu eta giza papilomaren birusaren
aurka txertatuta ez bazaude, ere bai.
Umetoki-lepoko minbiziari aurre har dakioke. **Begiratu. Zaindu.**



CAST



EUSK

PROGRAMA
DE DETECCIÓN PRECOZ
DE CÁNCER DE CUELLO
DE ÚTERO



UMETOKI-LEPOKO
MINBIZIA GARAIZ
DETEKTATZEKO
PROGRAMA

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua





Non ote Salvatoreren imajina?

Banituen bi urte baino gehiago Alkotzen izan zen Salvatore ermitako izen bereko tailaren atzetik. Bertako emakume batzuk oraindik oroitzen ziren, nola ermita herriak bota zuenean, Salvatoreren imajina **Apeztxera** eraman zuten, ez zen bertze argibide handiagorik. Nafarroako Artxibo Handian biltzen ari nintzen Ermita honetako informazioa eta hori ilustratzeko nahi nuen imajina.

Imajinaren bila

Apeztxea ikusi eta miratu ondoren ez zen deus aurkitu, nahiz alkoztarrek bertan ikusia zutela aitortu. Urte aunditz ziren hortaz, eta jendeak atzenduxe ere bazuen.

Herriko azterketak egin ondoren erabaki nuen Artzapezpikura jotzea eta bertako arte arduradunarekin egotea beren inbentarioetan zerbait informazio ba ote zen. Lehen begiratuan erran zidan ezetz, ez zuela deus opatu nahiz nik azaldu oso interesatua nintzela. Bikario jeneralari ere deitu nion nire nahia agertzeko ea berak bere aldetik zerbait egiten ahal zuen, eta agindu ere agindu zidan ahal zuen guzia egingen zuela.

Baina, nola diren gauzak, egun be-rean jakin nuen bazela tailaren fotografia eta ohar bat Alkotzen egon zen apez batek igorria Artzapezpikura 1987an, eta bertan zionez taila hori **Apeztxeko** sabaian zegoen, hau da, jendeak niri erranak eta ohar honek bat egiten zuten.

Fotografia banuen, baina zer gertatu zen tailarekin? Ba, Interneten, Adimen Artifizialean galdetu nuen eta hara non erantzun zidan gisa bereko taila non zegoen, Avilako herri bateko antikuari baten eskutan, hain zuzen.



Alkozko Salvatore ▲



Polizari jakinarazi eta azter-lan bartzuen ondoren berreskuratu ahal izan da XVII. mendeko taila hau, gure ibarreko ondarea dena.

Bertze xehetasun batzuk

Salbatoreren imajina hau 95 zentimetrotakoa da, koloreztatua eta ez oso landua, detaile gutxi samarrekin, beso bat gora eta bertzea bildua munduko bola berekin duela.

1940ko hamarkadan, herriak hondatua zegoen ermita bota zuenean, aurki aldarean egonen zen imajina hau.

Herritarrek diotenez, beren aurrekoei entzuna, imajina bizkarrean ekarri zuen herrira **Xalbadorreneko** Jose Orkinek eta **Apezetxean** utzi.

Urte aunditez **Apezetxean** eta Sakristian egon zen, armairu baten barnean, Elizan inoiz kokatu gabe, eta kontua da inork ez dakiela noiz eta zergatik desagertu zen. Gutxiago handik aitzina taila honek izan duen ibilbidea orain agertu den artio.

Orain agertu denez gero, pentsatzen dugu Alkotza ekarri beharko litzatekeela eta Elizan topatu non jarri. Izanen ahal da txokoren bat!



Lourdes Iraizotz

Hiztegia

Taila: talla.

Ilustratu: idatzi batean dibujo edo fotografia bat jartzea.

Atzenduxe: Atzendu samar izan (biak ere hemengoak ere badira).

Azterketa: investigación.

Artzapezpikua: Artzobispo (Apezpiku: obispo).

Arduraduna: responsable.

Bikario jenerala: obispo baten laguntzaile jenerala.

Adimen artifiziala: Inteligencia artificial.

Hain zuzen: precisamente.

Azter lana: investigación.

Berreskuratu: recuperar.

Ondarea: patrimonio.

Kokatu: toki batean jarri.

Ibilbidea: norbaitek edo zerbaitek egiten duen bidea.

Pulunpeko zozketan saria doanik ematen dituzten ostatuek

Eskualdeko ostatu askok doanik eskaintzen dute saria eta hori izugarritzko laguntza da guretzako. Apurka-apurka aterako ditugu guztiak.




Ultzamako Benta

Arraitz-Orkin, Carr. de Belate, 31797
ventadeulzama.com
948 30 51 38
info@ventadeulzama.com



Apeztegiberriko Denda

Asuntzion, 1, 31866, Jauntsarats
948 50 31 03





Atezta gazteak Korrikaren esperoan



Basaburuarrak Korrikan



Korrika Lizasotik pasatzen



Erasoarrak (eta Zarranzko baten bat)
Korrikan erositako kilometroan



Atezko herritarrek Korrikaren esperoan



Emakumeen bazkaria, martxoaren 8an, Larraintzarren



Gartzarongo ihoteak.
Gora piratak!



Haizearen, lurraren eta ganaduaren emakumeak dokumentalaren ondoko otamena Erason



Martxoaren 6an mosaikoa egin zuten Larraintzarko Ikastetxean



M8a igandea izanik, martxoaren 6an elkarretaratzea egin zuten Larraintzarko ikasleek



Udaberri usaina du gure ameztiak!

Korrikarekin batera, udaberri giroa ere iritsi da gurera! Gainontzeko urtarroetan bezala, Esan Erran irratiako elkarrizketa eta kolaborazioak eta bestelako albisteak ikusgai, entzungai eta irakurgai dituzue gure atari digitalean

Musika eta feminismoa

Hilero bezala, kolaborazio ezin interesgarriagoak izan ditugu gure irratsaioan, kolaboratzaile finen sareari esker. Dakizuenez, musikkak toki berezia du Esan Erranen -eta beraz, amezti.eus-en-, Katak eta Oihana fernandezek gidatutako saioei esker. Martxoan, Kurdistango emakume abeslari eta musikariak ekarri zizkigun Fernandezek

Entzun



Disidentziak musikan atalera, antzinako doinu tradizionalak nahiz berriak. Izan ere, egunero jasaten duten zapalkuntzari aurre egiteko tresna dute musika kurduak. Kataren kuir musika txokoan, be-

rriz, musikaren historian nahiko itzalean gelditu den mugimendu bat izan genuen: Riot Grrrl mugimendua eta punk feminista, 90. hamarkadan AEBetan zabaldu zena.

Txutxumutxu irrati, Larraintzarko ikastetxetik

Elkarlanean ari gara aurten Larraintzarko ikastetxearekin, eta iaz abiatu zen Txutxumutxu irratiaren proiektuak aurrera darrai. Martxoaren 8ari begira, irratsaio berezia egin zuten Larraintzarko ikasleek, eskolako irrati gelatik zuzenean emititu genuena. Lasai, zuzenean entzuterik izan ez bazenuten, beheko QR honen bidez podcasta entzuteko aukera duzue



eta! Eta erne, kazetarigai asko ditugu gure gaztetxoan...

Entzun





Ostiraletan, Memoriaren txokoa eta Egun Ero Kantuz

Memoriaren txokoa eta Egun Ero Kantuz saioak tartekatzen ditugu ostiraletan. Martxoaren 13an Koperniko gonbidatu genuen Memoriaren Txokora, berak esan baitzuen "ez garela unibertsoaren zilborra". Entzungai duzue podcasta. Bestetik, gonbidatu oso berezi bat izan genuen martxoaren 27ko Egun Ero Kantuz saioan: Txari Eleta olaguearra, Esan Erran irratiairen bultzatzaile eta lehen

esatarietako bat izan dugu protagonista. Entzun bere hamar kantu kuttunak eta bizitzako istorioa hemen!

Entzun



Entzun



Broma gutxi saioak 40!

Ostegunetan emititzen den musika saioa da Broma Gutxi, Lozabiango Txominek gidatzen duena. Punk eta hardcore binilo zaharrak eta berriak jartzen dizkigu zuzenean

saioan, hausnarketarako tartea ere utziz. Bada, arazo tekniko batzuk medio hainbat astez geldirik egon ondoren, bueltan da Broma Gutxi saioa, eta 40. atala izan genuen martxoaren 12an, ez da makala!

Entzun



Zorionak Zorionak!



Alaia Herrera Ibero mushintarrak urte bat egin du martxoaren 25ean, zorionak!!

Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Haur kanta

baten azalpena

Patziku Perurena poetak emana

Ez dugu ez hitzik eta ez pitzik galduko. Aitzinsolasarik gabe, hemen tupustean denon gozagarri duzue **HAUR KANTA** deitu diona autoreak:

Ama jolasean ta haurtxoa irrika
(bis)

Soin txurian irrixtan
laztanen kilika.

Kiri kirika!

Laztanen kilika.

Aho gorri ttikian ba dittu bi kika

Orrantx muturrak
xixta miñaren punttua (bis)

Oddol ttantta batera
biltzen da mundua.

Papo pupua!

Miñaren punttua.

Hilargian yotzen du haizeak
ttuttua

Galtxa motxak
hautxita horra xirrikua (bis)

Ixter txokoan
ongi gorde ñiñikua.

Ttiki ttikua!

Gorde ñiñikua.

Kattuak yanen dizu koxkan
pittikua

Ogi pittin batekin tori kokoloa
(bis)

Haundia egittek
seme pottoloa.

Egizu loloa!

Seme pottoloa

Gauetz etor ez dadin
hegan mozoloa

Irakurle, zer diozu? Irakurri baldin baduzu, bigarrenez irakurri ahots goraz. Dirdiragarria haur kantutxo hau. Magikoa benetan.

Poesia zale izan edo ez izan, Patziku Perurena goizuetar-leitzartuaren poesia honen sorginkeria eta xarma sumatzen ez duenak arima zurezkoa izanen du.

Eta gure azalpen guziak baino zuzenago, argiago eta dirdaitsuago erakutsiko baitigu autoreak berak, hona, moldeko letretan, berak lau orritan luzatu duenaren zatitxo batzuk, muina bera direnak:

"Eta nolako poesia darion! Behar bada, menderen mendetako amatasun senak erakutsi diona. Amak ere bai, baina amonak, ama onak, oraindik gehiago daki horretaz. Kasik munduko poesia guztia baitarama bere entrainetan haragitua. Eta nolako grazia haurrari hitz egiterakoan!"

*"Mirari hori jaso nahi izan nuen haur-kanta honetan. Mutikotan etxean, auzoan, amonengandik, ama onengandik, ikasitako poesia eder hori erakusten saiatu. Haur hizkera amonaren ahotan loratzen nola ikusi izan nuen. Hortzari **kika**, edo kornetari **ttuttu**, edo txokolateari **kokolo***




Patziku Perurena ezkerrean 2011ko martxoaren 10ean, adiskide batekin, bazkalondo batean. ▲



esateak nolako magia sortzen duen gogorazi. Poesiaren erroak erakutsi. Gauzei deitzeko modu eta doinu bakarrarekin ez dela aski. Eta nahiz pititoari **pittiku** deitu edo **niñiku**, hitz bakoitzak baduela bere barne muina,

nahiz sinonimoak izan edo hoskideak, ez dutela gauza bera iradokitzen beti. Inguruko mila lagunek ere eragiten dutela hitzaren animoan. Edo **mozoloak** ez duela zertan mochuelo, moche izan.



Imanol kantaria (Imanol Larzabal) ▲

OHARRAK

Perurenak, azken liburuan berrargitaratu du bere poesia hau, NORK GUDURA HAROA? titulupean atera duenean. Non-bait bazuen poesia eta herri poesia zertxobait botatzeko gogo eta hortaz etorri zaigu haur kanta honen azalpen-txo batzuk eginez.

Gaizki zenbatu ez baditugu, 54 artikulua sartu ditu, gure historia, batez ere Basaburua ttikikoa, gai filologikoak, In Memoriam pare bat eta beste mila gauza; eta tartean politikaz eta euskalgintzaz iritzi zorrotz bakarren batzuk.

Gai aunitz eta era askotakoak. Ez, aspertzeko betarik ez du ematen Perurenak liburu honetan. Gu behintzat ez gara aspertu, ez horixe!

Hiztegia

Haur hitzez gain, honako hitz hauek azalduko ditugu:

Aitzinsolas=hitzaurrea: prólogo.

Tupustean: bat-batean, uste gabe.

Ahots goraz: en voz alta.

Dirdaitsua: brillante.

Moldeko letra: letra de molde, letra impresa.

Sinonimoa: esanahi bereko hitza.

Muina (Muñe): médula.

Iradoki: sugerir, evocar.

Mozoloa: hemen mozorroa edo da. Haur hizkeran, alegia.

Berrargitaratu: Berriz argitara eman lehen idatzi eta argitaratutako zerbait. Reeditar.

Kanta entzuteko.
Tapia eta Leturia-
Amasemeak
oherakoan



MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGÍ PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

Apirilaren 13tik 16ra, ingurumenari lotutako zinema jaialdia Iruñean

Ingurumenari lotutako gaiak dakarzkigu hilero losu Alfaro biologo etsaindarrak Esan Erran irratora. Oraingoan, ingurumena eta zinema uztartzen dituen ekimen interesgarri bati buruz aritu zaigu: Iruñeko Ecozine jaialdia. Apirilaren 13tik 16ra ospatuko da aurtengo edizioa, eta ingurumenarekin lotura duten nazioarteko lau dokumental botako dituzte

Iruñeko Ingurumen Heziketa zerbitzuetatik antolatzen dute urtero Ecozine festibala, zinema eta ingurumena lotzen dituen nazioarteko jaialdia. Zinema elkarrizketarako eta jendartearen eraldaketarako tresna gisa ulertzen dute antolatzaileek, eta 2007an Zaragozan antolatu zen lehen edizioa. 2017tik, Iruñean ere jaialdi honetaz gozatzeko aukera dago. Pelikulen zuzendariak edo bertan lantzen den gaiarekin lotura zuzena duten adituak izanen dira emanaldietan, solasaldirako.

Apirilaren 13tik 16ra, astelehenetik ostegunera, dokumental bat emanen dute egunero Golem Baiona zinemetan, arratsaldeko 19:30ean. Horrez gain, gazteentzako atal berezia ere egingen dute beste behin, DBHko, Baxilergoko eta trebakuntza-zikloetako ikasleei zuzenduta. Sail ofizialari dagokionez, hauek izanen dira aurtengo pelikulak:

Astelehenean, All birds sing beautifully (Txori guztiek ederki abesten dute): Krista Burane zinema zuzendari letoniarren pelikula, errepi-de dokumental eta musikal honek gainbera azkarrean dauden hegazti-espezieak ditu ardatz, eta Zehazki horien populazioak Letonian eta Europa osoan. Zer da txori bat letoniar batendako? Sinbolo mitologiko bat, izaki bizidun bat, floraren zati bat edo bere hurkoen gainean txio egiten duen artista bat? Kultura eta natura



▲ Ecozine jaialdia, Golem Baiona zinemetan

elkarrekin bizi daitezke? Eta txoriak norenak dira?

Asteartean, Eidòn: Simone Bardi zinema zuzendari italiararen lana, Po ibaiaren deltaren garaipen eta haren itzal gero eta handiagoaren berri ematen digu. Izan ere, bertan oreka moduko bat hautsi da, agian betiko. Iraganeko lainoen eta oraingo ziurgabetasunen erdian, Sacca di Scardovari aldeko arrantzale-familia baten erresilientzia ekologikoa agertzen zaigu. Ahotsak aitortzen du lurraren oihuei entzungor egin zaie-la hamarkada luzez, eta orain etxea erortzeko arriskuan dago. Berraurkitzen ahal da harmonia garai anker hauen linboan? Filmak gonbit egiten die ikusleei Deltaren begiradan galtzeko, bere misterioak argitzeko eta gizateriak bizi-altxor honetan duen leku hauskorra zalantzan jartzeko.

Asteazkenean, Rapa: Alejandro Enriquez galziararen lanak herrialde horretako mendiko zaldi arrazaz dihardu, desgartzen ari da, izan ere, zaldi basati gutxi batzuek baino ez diote Eusten abere-lapurren, otsoen eta orain energia konpainia multinazionalen jazarpenari. Ondoa, Sabucedo herri txikiak bakarra den zer-bait gordetzen du: antzinako lotura intimoa. Bai zaldiak, bai laborariak, egoera ispilatuan bizi dira: batzuen amaierak besteen amaiera dakar.

Ostegunean, Shifting baselines (Oinarri aldakorak): Julien Elie kanadarraren lana Rio Grande ibaia itsasoarekin elkartzen den tokian kokatzen da, SpaceX-en suziriak jartzen diren lekuan. Astronomoek zerura begiratzen dute, saltzaile ibiltariek beren produktuak sustatzen dituzte eta ekologistek kalteak aztertzen dituzte. Ongi etorri Boca Chicara (AEB).



Harriturik nago, eta harritzekoa ere bada

Gizakiaren egin beharra jaiotzetik beretik. Baita animaliena ere, sortzetik beretik hasten dira ikasten beren ama eta kideengandik. Baina, adibidez, zakur ar eta emeen artean ez dut sumatu sortu duten umealdiz eztabaidarik. Kontent dira kumeez

Aste honetakoa

Lehengoan Iruñeko Udaletxe ondoan, atsaldeko 7etan. Abarrotsa entzuten da. Hurbildu eta 200 bat lagun oihuka gerra kriminal honen kontra. Inperialismoaren kontra.

Eta nire lagunak, bat-batean

-Hara, bosgarren adina! (80 urtetik gorakoak ziren den-denak)

Eta ene baitan, non dago jende gazteagoa? Eta non dugu sartua gazteria?

Etorkizuna: munduaren azkena?

Gau berean Noticias Egunkaria Iranen kontrako gerra ilegal eta kriminalaz artikulatu bat. mundua kolokan jarri duena. Honela titulatu du egileak,



▲ Ali Khamenei, xiiten gidari espiritual gorena. Israelgo gobernuak asasinatu 28an, 86 urtetan

Jose Luis Uriz politikari izanak, bere artikulua; zintzoa eta bihotzetik aterea: **¿Estamos a un telediario del fin?**

Eta segidan testu motz baina mingarri bat, zerbait euskara itzuli dudana:

"Bista goratu eta leihotik begiratu diot gizarteari. Basakeriaren kontra erreazionatzen ez duena..."

"Gure belaunaldikoez zerbait gaizki egin dugu..." "...agian laxoegiak, adeitsuegiak, ¿demokratak? izan gara mezezi ez zutenen aitzinean"

Bai, zerbait gaizki egin dugu horrelako ume eta biloba soraioak hazteko.

Sentiberatasuna eta errukia

Joan den mende hasierako, gerra aurreko gurasoek, gure aitaxi eta amatxi haiek, nik uste ez zirela inoiz damutu beren umei zukua jan arazteaz eta sendo eta bizkor hazteaz eta hezteaz. Aldiz, hemen datorkigu gerra ondoren sortutako aitaxi bat, Jose Luis Uriz, Nafarroan urte luzez politikaria izandakoa galdezka zer egin ote dugun gaizki horren ume soraioak hazteko. Ni ere, euskaltzaleon txoko hau aprobetxatuz, galdera berberarekin nator orain berean Irango herri martiria nola munduko bi potentzia militarrik handienak zafratzen, xehatzen eta kiskaltzen duten ikusteaz; harriturik eta nahigabeturik: zertan dira gure ume eta bilobak? Beren isiltasuna harrigarri zait.

Eta nik zer besterik egin dezaket? Juan Pablo II.ak egin zuen bezala, ia bakardade osoan, Iraken kontrako gerra hilgarri hura salatu behin eta berriz. Edo oraingo Aita Santuak be-

zala, oraingoan aldeko gidari gehiagorekin, Irango herriaren kontrako gerra kriminal hau gaitzetsi.

Gaur, zapalkuntza zer den ongi dakidan euskaltzale mixerable honen aldetik, eta ustez euskaltzale guzien partez, maitasuna eta ardo frexkoa eskaini nahi diet irandarrei, bihotz bihotzez



Txurdan

- **Hiztegia**
- **Zukua:** potaje (Gure alderdiko hitza ere bada).
- **Eredugarria:** ejemplar, etsenplua ematen duena.
- **Abarrotsa:** zalaparta (Hemen asko erabiltzen den hitza da abarrotsa).
- **Laxoegia:** permisivo
- **Adeitsua:** complacencia, complaciente.
- **Soraio:** gogo eta arimako gauzetarako nagitasuna eta sentimenik eza agertzen duena.
- **Sentiberatasuna:** sensibilidad.
- **Errukia:** Munduan aspaldi agortuxea dagoena.
- **Aldiz:** berriz, por otra parte.
- **Zafratu:** jipoitu.
- **Salatu:** denunciar.
- **Gaitzetsi:** txartzat jo. Hemengo hitza ere bada. Adibidez "axuria gaitxetxi ardiak" "gaitxetxa da hori".



Apirilean, komiki, musika eta beste abentura batzuk

Apirilean, ostiral kulturalek hainbat lekutatik bidaiatzera eramango gaituzte: adibidez, nazioarteko artista baten kontzertua izango dugu, Gwilyng galestarrarena; espeleolo-urpekaritzaren munduan murgilduko gara; eta komikiei esker, irudimenarekin nahi dugun tokira joan ahal izango gara.

Hilaren 10ean, Eliseo Belzunce suhiltzaile nafarra izanen dugu gurekin, espeleolo-urpekaritza esplorazio garrantzitsu eta aitzindariak egin dituen kidea. Eskaintzen digun dokumentalak 2015eko udan Burgosko Pozo Azulen egindako esplorazioa kontatzen du. Helburua galeria berriak aurkitzea zen, sarreratik hamabi kilometro baino gehiagora; horretarako, hamar kilometro baino gehiago urpean egin behar dira. Munduko espeleolo-urpekaritzaren erronka handienetako bat izan zen. Protagonistetako bat gurekin izanen da, arratsaldeko 19:00etan, Larraintzarko Bentan.



Larraintzarren izanen da eta alde zuzenetik izena eman behar da hemen: liburutegia@ultzama.es. Bere bisita aprobetxatuz hilabete honetako erakusketa bere marrazkietako batzuek osatzen dute, baita sopsaren batek ere, hurrengo orrialdean aurkituko duzuen.

Belatzen erakusketa osatzen duten marrazkien artean, duela urte batzuk gure liburuzain Patxi Irurzun idazleak ON magazinean argitaratu zuen Bestiarioa-k ilustratu zituen marrazkiak daude. Jatorrian gaztelaniaz argitaratu ziren, baina Patxi horietako bat euskaratu du Pulunperako.



Hilaren 24an Larraintzarko Bentan nazioarteko kontzertu bat hartuko du, Gwilyng galestar abeslariarena. Gwilym Bowen Rhys galestar hizkuntza eta musikaren enbaxadore bihurtu da. Jatorriz Bethel herrikoa, galesez abesten du oroimena duenetik, eta horrek lotura sakona ematen dio bere lurraldeko kantu eta musika tradizionalekin. Galesko musikaren ahots berri eta bizienerako bat da.

Azkenerako utzi dugu komikia. Hilaren 17an, Mikel Santos Belatz etorriko zaigu, eta bi orduko komiki trailer dibertigarria eskainiko die txikiei eta helduei (hamar urtetik aurrera): 17:00etatik 19:00etara.





TIGREOSTRUKA (Patxi Irurzun eta Belatz)

Tigreostruka munduko animaliarik beldurkor eta bizkorrenetako bat da. Hain da bizkorra tigreostruka, korrika doanean hegan egiten duela ematen duela. Batzuetan, korrika doala eta hegan doala ematen duenean, bere marra beltzak azaletik ezabatzen zaizkio.


Geldirik dagoenean, aldiz, tigreostrukoa saskibaloiko baloi bat bezalakoa da, bere azala gogorra delako, laranja kolorekoa — marra beltzekin — eta poro txikiz betea.

Baina, egia esan, tigreostruka, guztiaren beldur denez, ia inoiz ez dago geldirik. Euli bati doministiku egiten badio, tigreostruka izutu egiten da eta korrika hasten da. Korrika hasi tigestruzoa bere itzala ikusten badu (eta hain azkarra denez, aurreratzea eta guzti lortzen du)...

Beti ari da tigesostruka korrika, eta asko beldurtzen denean, kilometro batzuk urruntzen da, bere atzaparrekin lurrean arakutzen du eta egiten duen zulotxoan burua ezkutatzen du. Haur txikiek aurpegia eskuekin estali eta inork ikusten ez dituela uste dutenean bezala.

Tigreostruka guztiaren beldur da. Beldurra die ekaitzei, tigre-ehiztariei, irakasleari, azterketei, bullying egiten diotenei, lapurrei, poliziarri, dragotoxolarrei eta meteoritoei, tigreeri eta ostrukei...

Tigreostruka bere buruaren beldur ere bada, hainbeste beldur izateaz eta burua ezkutatzaz. Tigreostrukak burua ezkutatzen du konturatu gabe, senez, baina, funtsean, badaki zulotik ateratzen duenean bere arazoek hor jarraituko dutela. Izan ere, batzuetan, „bere arazoak hor daude burua lurperatuta duenean ere. Ekaitza dagoenean bezala, eta tigreostrukaren saskibalo-i-baloien larrua oineta-



tik burura bustitzen denean bezala (beno, oinetatik lepora).

Batzuetan, tigreostruka beldur da bere gurasoak hilko ote diren, edo bera hilko ote den, eta ezin jakin nora joaten den bat hiltzen denean, albistegiek ere beldurra ematen diote, edo oihu egiten duen jendeak, edo beti barre egiten duen jendeak...


Hala ere, beldurra izatea ez da beti txarra, eta ez gara koldarrak beldur garen guztietan.

Beldurra izateak lurreko animaliarik bizkorrenetakoa ere bihurtzake.

Azken batean, beldurra izateak batzuetan indartsuago, gizatiarrago, tigreostrukago bihurtzen zaitu.

 Patxi Irurzun





Korrika

Korrikak gure eskualdean utzi duena

Martxoaren 22an igaro zuen KORRIKAK gure eskualdearen zati bat. Atetz, Odieta eta Anueko zenbait herri zeharkatu zituen igande goizean, eta ehunka herritar ikusi genituen euskararen aldeko lekukoa elkarri pasatuz. KORRIKAREN webgunetik hartutako argazkien aukeraketa egin dugu atal honetarako, eta Larraintzarko eta Jauntsarasko Korrika txikietan irakurri zituzten bi mezu ere ekarri ditugu, eskualdeko herritarrek idatziak.

KORRIKA BADATOR ETA BADOA, EUSKARA HEMEN GELDITZEN DA

Korrika 2026: badator eta badoa.

Hamar egunetan 2180 kilometro
Euskal Herri osoan zehar,

milaka lagun, pauso eta hots
Euskararen alde.

Atetz, Basaburua, Lantz,
Odieta eta Ultzaman ere,
Euskararen alde.

Larraintzarko ikastetxea ere,
Euskararen alde.

Korrika dator eta korrika doa,
baina gure baitan gelditzen da,
gugan arrastoa uzten du,
gu ere Euskara garelako.

Lur honek euskara du,

mendi, larre, ibai, bide eta etheen
izenetan du euskara,

gure arbasoen baitan du euskara,
baita euskaraz aritzeagatik lotsa-
razi zituzten horien baitan ere.

Korrika 2026: badator eta badoa.

Guk ere korrika eginen dugu
eta Korrikaren erritmoan gure
izerdiaz lur hauek busti ondoren,

Korrika joan eginen da,
baina Euskarak hemen jarraituko
du: gure ikastetxean, herrietan,
plazetan.

Hau Euskararen lurra delako,

Euskararen
seme-alabak garelako

eta lur honek hartzen dituen
pertsona guztien hizkuntza ere
badelako.

Korrika badator eta badoa,


Euskara berriz,
hemen gelditzen da.

Gure lurretan, gure ikastetxean,
gure artean, lagunen artean.



Gurutze Santxo Gaskue







Utzidazu kontatzen...

negua joan da ta,
Korrika badator!

Hizkuntza gabe
nola irtengo gara plazara?

Herri ikustezin hontan

xoriei mintzo gara,
mintzo gara errekarari.

Txarrenari onena atera diogu
aske maite, aske bizi nahi dugu.

Erre zenituzten
sorginen erratzak guk dauzkagu!

Gora herria!

Abesti berriren batean,
zuhaitz zaharren azaletan,
norbaitek oroituko gaitu,
behin betiko, behin betiko.

Zer gara
euskara bera ez bagara?

Kantatzen duen herria
ez da inoiz hilko!





Mendialdean zaintzaren arloa indartzeko ekimen eta proiektuak abian

Zaintzen alorrari lotutako hainbat ikastaro eta ekimen ari dira antolatzen azken hilabeteetan Cederna Garalur landa garapenerako elkartetik. Horien berri eman digute Esan Erran irratian, eta Pulunpeko tartetxo hau ere erabiliko dugu proiektu honen inguruko xehetasun gehiago emateko.



Nondik gatoz?

Mendialdean pertsonen zaintza lehentasunezko erronka bihurtu da, biztanleriaren zahartzearen eta zaintzen antolaketan gertatzen ari diren aldaketen ondorioz gizarteko behar berriei erantzuna emateko premia ikusi da. ç

Zer egiten ari gara?

Cederna Garalurrek eskualdeko eragile ezberdinekin batera hainbat

ekimen bultzatu dituzte: zaintzan diharduten eragileak biltzen dituen Zaintza Sarea sortu da, eskualdeko baliabideen mapa egin da eta tokiko proiektuak sustatzen ari dira, hala nola Basaburuako Eguneko Zentroa, Lekunberriko eta Leitzako Jubilatuen Tabernak edo Beteluko Adinekoen Egoitza. Halaber, Elkar Zainduz proiektua martxan jarri da etxeko arreta indartzeko. Aldi berean, Mimukai zentroak zaintzaren arloko formakuntza espezializatua

eskaintzen jarraitzen du, sektorea profesionalizatzeko eta eskualdean enplegu duina sustatzeko.

Nora goaz?

Datozen hilabeteetan formakuntza ziklo berriak eta tokiko proiektuak garatzen jarraituko dugu, Mendialdean kalitatezko zaintza-ekosistema indartzen jarraitzeko.

Seme-alabei euskara oparitzeko aukera ederra

Martxoaren 9tik 13ra aurrematrikulazio kanpaina egon da abian Nafarroan, eta gurasoek haien seme-alabak datorren urtean non matrikulatzeko aukera izan dute. Eskualdeko eus-kara mankomunitatetik haurrak D ereduan matrikulatzeko deia egin dute, eta euskarazko ereduaren onurak eta familiek izaten dituzten ohiko zalantzak errepasatu ditugu Ariane Usarbarrena euskara teknikariarekin.

Jauntsarasko Oihanzabal eta Larraintzarko ikastetxea ditugu eskualdeko eskolak, eta biek D ereduko hezkuntza eskaintzen dute. Martxoan izan da datorren ikasturtera begirako aurrematrikula kanpaina, eta familia askok hezkuntza eredia eta ikastetxea hautatu behar izan dituzte. Ate irekien jardunaldiak egin dituzte eskualdeko ikastetxeek; otsailaren 24an Larraintzarko ikastetxeak eta martxoaren 4ean Oihanzabalek.

D ereduaren onurak

Ukatu ezinezkoa da oraindik egiteko asko dagoela, baina duela 40 urte euskarak bizi zuen egoerarekin alderatuz gero, nabarmena da aldaketa. "Argi dago errazagoa dela hizkuntza bat txikitatik ikastea, heldutan baino", gogorarazi du teknikariak. Zentzu horretan, haurrak D ereduko eskoletan matrikulatzeak gure hizkuntza ikasteko aukerak erraztuko dizkiela agerikoa da. "Haurrei txikitatik euskara ematea sekulako oparia eta aukera da, ta ez etor-kizunera begira lana topatzeko soilik, euskal komunitatean murgiltzeko aukera osoa ema-ten duelako baizik", gaineratu du.

Bestalde, garrantzitsua da D ereduaren aldeko hautua egiten duten gurasoek apustu hori bizitzeko esparru guztietara zabaltzea. "Euskararen aldeko apustuak ezin du eskolan soilik gelditu, azkenean, haurrek eskolan baino askoz denbora gehiago egiten dute hortik kanpo, beraz, sozializazioari begira nahiz eskolaz kanpoko harremanetan ere

“ Euskararen aldeko apustuak ezin du eskolan soilik gelditu ”



Larraintzarko eskolan, konpostaren inguruko tailerlean

“

Guraso erdaldunek ikasketa prozesuan baliabideak eskainiz lagundu ditzakete seme-alabak

”

bermatu beharra da-go euskara”, gogorarazi du. Izan ere, eskolako hizkuntza ereduak bezainbeste eragiten du haurraren familiako, lagunarteako nahiz aisialdiko hizkuntza hautuek.

Gurasoen ohiko kezka eta zalantzak argitzen

Seme-alabak D ereduari matrikulatze orduan, zalantza asko izaten dituzte guraso batzuek, batik batik euskaldunak ez diren kasuetan. “Gurasoen ohiko zalantza izaten da haurrak D ereduari matrikulatuz gero gaztelera ikasteko gai izanen ote diren, eta erantzuna argia da: bai. Zalantza hori duten familek ulertu beharra dute euskara hizkuntza gutxitua dela, eta gaztelera dela hizkuntza hegemonikoa, jendarteko esparru askotan nagusitasuna duena, beraz, agian lehenago edo beranduago, baina argi dago haurrek ez dutela arazorik gaztelera ikasteko”, adierazi du.

‘Eta, euskaraz ez badakit, nola lagunduko diot nire seme-alabei ikasketekin?’. Guraso askok egiten duten galdera izaten da hori, teknikariak nabarmendu duenez. Kasu horretan, garrantzitsua da gogoratzea gurasoen papera ez dela

irakaslearena, ezta haien seme-alaben etxekolanak egitea ere. “Guraso erdaldunek posible dute ikasketa prozesuan laguntzeko baliabideak

eskaintzea, ikasketa ohiturak bultzatuz adibidez, edo ikasteko toki egoki bat eskainiz, kontsultarako materiala eskura jarritz...”, dio.



Oihanzabal eskola ▲

Era.eus, familiendako erreminta interesgarria

Nafarroako toki-entitateetako 29 euskara zerbitzuek elkarlanean sortu duten webgunea da era.eus, hain zuzen euskaraz ikasten duten haurren gurasoei zuzendutako gunea. Tresna eta baliabide ugari topatuko dituzte bertan gurasoek, adin eta maila desberdinetako haur eta gazte-

txoei zuzendutakoak: ipuinak, jolasak, abestiak, app-ak eta jostailuak, gurasoen-tzako aholkuak... “Ez gara nekatuko webgunea gomendatzeaz, izan ere, uste dugu gu-rasoek beti eskura izateko moduko erreminta interesgarria dela”, dio.

Aitatxik eta amatxik, pauso bat aurrera! Ultzama-Basaburua-Imotz

Bi urte pasa dira Ultzama alde guzian lanean ari garela. **EZPELA Euskara Taldea** gara. Beharbada ez gara oraindik oso ezagunak, baina, bai, gauza franko egin ditugu eta inoiz egin ez diren gauzak gainera. Hemendik aurrera gauzak egin bidenabar horien berri ere emanen dugu.

Joan den udazkenean erabaki genuen euskararen aldeko zenbait ekintza egitea negu-udaberrian. Alde batetik ikusten dugu euskararen ezagutzak behera egin duela, bestetik transmisioa kili-kolo dabilela, eta hori konpontzeko zenbait ekintzatxo egingen ditugu.

Gauza inportanteenetako bat, aspalditik buruan iltzaturik genuena zen, aitatxi eta amatxiekin biltzea, beren bizipenak biltzeko eta euskararen inguruan zerbait hitz egiteko, eztabaidatzeko, guk eta denok ikasteko eta, konformidadez, erabakiren batzuk hartzeko. Gure jende inportanteenekin hastea erabaki genuen eta hala egin dugu. Gehienek zuen umeak euskaraz hazi eta hezi dituzue, nola ez zarete ba inportanteak izanen?! Sines, euskararen transmisioan jende inportanteak izan baitzarete!

Horrela, gauzei beren bidea emateko, "kafe-hartze" batzuk antolatu ditugu, lehena Basaburuan, bigarrena Ultzaman eta hirugarrena Imotzen.

Eta denon artean gurean euskarak izan duen historia aztertu dugu eta, berriz ere, hatsa eta indarra emateko, hainbat neurri hartzea erabaki dugu. KAFE-HARTZE batzuetan asko enantzatu dugu, beste batzuetan ez hainbeste; batzuetan 7 puntu adostu eta batean 2.

Honek segida ere izanen du eta aita-txi-amatxi erdaldunekin ere hartuko dugu kafea, ez izan beldurrik, denok batean, batasunean egingen baitugu aurrera.

Aztertu eta erabaki diren zazpi puntuak oraingoz ez ditugu hemen azalduko, baina bai lehen biak:

-Hurrekin beti euskaraz egin behar dugu (eta beti da beti, inoiz ez erdaraz)

-Herriko euskias, ikasi duun euskian, hitz in biar diegu beti (Guk baitakigu euskias eta ez umeek) Naturaltasunes mintzatu gattezen beti hurrekin!

Horra hor erabakitako lehenbiziko bi gauza inportante jende inportan-

teekin hartutako erabakiak. Denok konforme bi kontu horiekin hiru kafetxoetan!

Esan beharreko beste kontu batzuk ere badaude. Adibidez, Itziar, Mari-txu, Mari Karmen eta Idoia ibili dira gauzak antolatzen eta bizkotxo eta kafe goxoak prestatzen. Biltokiak txukuntzen eta bero-beroak edukitzen ere bai!

Zer iduritzen zaizue? Bailada haue-tako jendea ere ez gara askotan biltzen-eta, aukera ederra izan dugu elkar agurtzeko eta, kasuren batean, ezagutzeko ere bai.

Guk behintzat asko ikasi dugu eta oso-oso pozik itzuli gara etxera, oso pozik!!!!

Hurrengo artio.



Txurdan

Hiztegia

Ekintza: actividad.

Kili-kolo: vacilante.

Aitatxi-amatxi, aitona (attune) amona, amañi, amandrea...

Eztabaidatu: debatir.

Bizipena: vivencia.

Hezi: educar.

Sines: Zinez (batuan) De verdad.

Aztertu: examinar.

Enantzatu: gauzak aurreratu, aintzinatu (la Nafarroa guziko hitza da, orain galduxa zoritxarrez).

Adostu: konforme jarri.



Ezpeleta taldea



2026ko otsailean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

2026ko otsailean inor jaio denik ez dugu jakin.

Heriotzak:

ULTZAMA Larraitzar

Mariaje Legarra Astitz, **Eskoletxeko** etxeoandrea, otsailaren 8an hil zen 68 urtetan.

Ezkontzak:

Inor ezkondu denik ere ez

“ *Beti izanen
zaitugu
gogoan* ”



▲ Mariaje Legarra Astitz



**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866
ZIAURRITZ - argapin@hotmail.com

Zer egin genezake gure haurren ingurua euskaldunagoa izateko?



**Maiatzaren
7tik 17ra**

